

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Guk egindako kuku enpresa aurrera eramateko zenbait **bazkideekin aliantzak** sortzea erabaki dugu, **arriskuak murrizteko**, gure **enpresa optimizatzeko** eta gure **negoziorako baliabideak eskuratzeko** helburuarekin. Aliantza horiek hurrengoak izango lirateke:

Gure negozioak arrakasta izan dezan, psikologoen lana oinarritzkoa da eta horretarako, **EHUko Psikologia Fakultatearekin** harremanetan jarriko gara. **Laugarren mailan praktikan dauden ikasle-psikologoekin lan egingo dugu.** Ikasle hauek aukeratzearen arrazoiak ondorengoak izango dira; alde batetik, beraien praktikak gurekin egin ditzaketelako. Profesionalak izango ditugu haien praktikak ondo bideratzeko eta dinamizatzeko. Psikologia Fakultateko irakasleak eta gure enpresako bi bazkide (June eta Juliak) antolatuko dituzte. Beste alde batetik, gure enpresaren eskaintza merkeagoa izatea nahi dugunez, bide egokiena iruditzen zaigulako. Horrez gain, gazte hauen artean lanpostuak eskainiko ditugu; eta horrela, psikologo berri hauen lan merkaturatzea erraztuko dugu. Haien etorkizunera begira, lanerako esperientzia gehiago izango dute. Ikasle talde hau gure enpresa optimizatzeko eta langileak eskuratzeko erabiliko dugu.

**Eusko Jaurlaritzarekin eta diputazio ezberdinekin** ere aliantzak egingo genituzke. Denontzako onuragarria den negozio ideia denez, diru laguntzak eskatuko genituzke. Horretarako, gure proiektua EAEko diputazio eta udaletxe ezberdinetan aurkeztuko genuke.

**Osakidetzako psikiatria eta psikologia arloko langileekin** harremanetan jarriko gara. Osakidetzako psikologoek gero eta paziente gehiago dituztenez, lana murrizten lagunduko diegu. Bezeroei zerbitzu publiko hobetua eskainiz. Elkarlanean arituko gara psikologoak lanean izango dituztelako hitzordu zehatz batekin eta gure aplikazioa eskuragarri izango dutelako edozein momentutan erabiltzeko. Horrela, ez da ezer ez pilatuko eta biztanleria osasuntsuagora gerturatuko ginateke.

Publizitatea lortzeko, **“influencer” aditu batzuekin** harremanetan jarriko ginateke. Gure aplikazioan, guri publizitatea egitearen truke, beraien eduki ezberdina publikatuz haiei publizitatea eskainiko diegu. Biok irabazle ateratzen gara. Gure enpresa optimizatzeko eta beste ikuspuntu gehiago izateko elkartzeko izango litzateke. Pentsa ditugun “influencer” artean, **Byhermos, Sol Carlos,**

**Lorena Okenve, Carla Galeote eta Cris Blanco** ditugu. Pertsonai ezagun hauek beraien iritzi pertsonalak, informazio zientifikoa eta baita azkenengo orduko berriak ere azaltzen dituzte osasun mentalaren inguruan; hortaz, gure aplikazioan arrakasta izango lukete.

Batzuetan, norbaitekin zure esperientzia partekatzea eta besteena entzutea beharrezkoa da. “Askoren mina, tontoen atsegina” esaera zaharrari jarraituz, gure aplikazioan “chat” bat izango dugu. Hori osasuntsua izateko honen kontrola izatea beharrezkotzat jotzen dugu. Horretarako, **”discord” aplikazioko moderadorea**, Paula izango da eta “chat” horien ardura izango du. Zenbait hitz debekatuta egongo dira eta hortik botatzearen arriskua izango dute. Arriskuak murrizteko aliantza izango da.


Beste atal batean, osasun mental arloko liburuak, pelikulak eta abar gomendatzeko atala izango da. Bezeroek haien gaixotasun mentalen baliokideak aurkitzea, autolaguntzak eta gaixotasun mental horri buruzko informazioa ikastea lagungarria izan litzatekeelako. Guk eta gure bezeroek gomendatzeko boterea izango dugu argazki edo iruzkin bat publikatuz. Han, “influencer”ren publizitatea jarriko da. Atal honetan **pertsona anitzekin**, enpresa desberdinekin, liburu edo pelikula saltzaile batzuekin, ... harremanetan jarriko gara.

Enpresa honen sortzaileak, bost pertsona gara eta bakoitza atal batez arduratuko da, etorkizunean izan nahi dugunaren arabera. Guztiok psikologian espezializatuta egongo gara hitzaldietan laguntzeko edota praktiken laguntzaileak izateko.


- **Paulak** Ingenieritza ikasi nahi duenez, berak diseinuz eta programazioaz arduratuko da.



- **Junek** eta **Juliak**, psikologia ikasteko nahia dutenez, Junek hitzaldiak emateko prestatuta egongo litzateke eta Juliak gainbegiratzeaz eta hizketaldien irudi psikologikoa izango lirateke. Biek praktikak bideratzen lagunduko dute.



- **Sheilak** Zuzenbidea ikasteko gogoak duenez, bere lan garrantzitsuena aliantzetaz arduratzea izango da. Bezeroak lortzen eta guztia legearen aurrean aurkezteko egokia izateaz arduratuko da.



- **Uxuek** Enpresetako Administrazioa eta Zuzenbidea ikasiko duenez, finantzen kontrolaz eta kontabilitateaz arduratuko da du, hau da, estadistikak, kontuak, ... eta abar. eramango ditu aurrera.

